

Nafarroako Kirolaren Institutuari buruzko fiskalizazio-txostena, 2009ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko otsailaren 21ean eginiko bilkuran, agindu zuen Nafarroako Kirolaren Institutuari buruz Comptos Ganberak egindako fiskalizazio-txostena, 2009ko ekitaldikoa, argitaratzea.

Iruñean, 2011ko otsailaren 21ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Nafarroako Kirolaren Institutuari buruzko fiskalizazio-txostena, 2009ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (32. or.).
- II. Fiskalizazioaren helburuak eta norainokoa (32. or.).
- III. Nafarroako Kirolaren Institutua (33. or.).
 - III.1 Izaera, eskumenak, egitura organikoa eta araubide ekonomikoa (33. or.).
 - III.2 “Kirola sustatzea” izeneko 940. programaren helburuak (35. or.).
 - III.3 Araudia (36. or.).
- IV. Fiskalizazioaren ondorioztapenak (36. or.).
 - IV.1 Aurrekontu-betetzea (36. or.).
 - IV.2 Legezketasuna (36. or.).
 - IV.3 Azterketa operatiboa (36. or.).
- V. Fiskalizazioari buruzko iruzkinak (37. or.).
 - V.1 Aurrekontu-betetzea (37. or.).
 - V.2 Langile-gastuak (38. or.).
 - V.3 Ondasun arrunten eta zerbitzuen erosketa (39. or.).
 - V.4 Transferentzia-gastuak (39. or.).
 - V.5 Inbertsioak (40. or.).
 - V.6 Kirol-instalazioetako diru-sarrerak (42. or.).
 - V.7 Jasotako transferentzia arruntak (42. or.).
 - V.8 “Kirola sustatzea” izeneko 940. programaren azterketa operatiboa. (42. or.).
- VI. Gomendioak (44. or.).

Eranskina: “Kirolaren sustapena” izeneko 940. aurrekontu-programaren adierazleak eta programa horren aurrekontu-betetzea (45. or.).

Nafarroako Kirolaren Institutuak behin-behineko txostenari eginiko alegazioak (48. or.).

Nafarroako Comptos Ganberaren erantzuna, Nafarroako Kirolaren Institutuak behin-behineko txostenari aurkezturiko alegazioei emandakoa (52. or.).

I. SARRERA

Comptos Ganberak “Nafarroako Kirolaren Institutua” erakunde autonomoa fiskalizatu du, Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentuari atxikia. Institutu horren jarduera jasota dago 940. aurrekontu-programan; hots, “Kirolaren sustapena” deiturikoan.

Fiskalizazio-lan hau sartu zen Comptos Ganberak 2010erako onetsi zuen urteko fiskalizazio-programan, eta auditore batek, auditoriako teknikari batek eta praktiketan zegoen unibertsitate-ikasle batek osaturiko taldeak egin zuen, betiere Comptos Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen laguntzarekin.

Landa-lana 2010eko uztailetik azarora bitartean egin zen.

Nafarroako Kirolaren Institutuko eta Sprin sozietate publikoko langileei eskerrak eman nahi dizkigu lan hau egiteko eman diguten laguntzagatik.

II. FISKALIZAZIOAREN HELBURUAK ETA NORAINOKOA

Fiskalizazioaren helburuak hauexek dira:

a) Egiaztatzea ea “Kirolaren sustapena” deritza 940. aurrekontu-programak islatzen ote duen, alderdi esanguratsu guztietan, Nafarroako Kirolaren Institutuak 2009an egindako jarduera, aplikatzeakoak diren printzipio eta kontabilitate-arauei jarraituz.

b) Egiaztatzea lege indardunak bete diren Nafarroako Kirolaren Institutuak 2009an izandako jarduera finantzarioan.

c) Institutuak kirola sustatze aldera ematen dituen zerbitzuetan eta egiten dituen jardueretan erdietsitako ekonomia-, efizientzia- eta eraginkortasun-maila aztertzea.

Lanaren norainokoa hedatu zen 2009ko "Kiolaren sustapena" izeneko 940. aurrekontu-programara.

Fiskalizazioa gauzatu zen barne-kontrolaren analisisan eta programako gastu eta diru-sarreraren lagin baten berrikuspenean; horretarako, lanaren helburuak betetzeko beharrezkotzat jo ziren hautaprobak egin ziren. Halaber, programari esleitutako baliabideak eta aurreikusitako helburuen betetze-maila ere aztertu ziren

Auditoria operatiboa egitean, muga bat izan da eginiko jarduera edo emandako zerbitzu bakoitzari kostu osoa esleitzeko kostu-sistematik ez egotea; halaber, eginiko jarduera batzuen kasuan ez egotea definituta helburu zehatz eta neurgarririk, bai eta programaren helburu batzuk neurtzeko adierazlerik eza ere.

Lana egin da Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoen Koordinazio Batzordeak onetsiriko fiskalizazio printzipioei eta arauari jarraituz, zeinak Comptos Ganberak bere fiskalizazio-eskuliburuan garatu baititu.

III. NAFARROAKO KIROLAREN INSTITUTUA

III.1 IZAERA, ESKUMENAK, EGITURA ORGANIKOA ETA ARAUBIDE EKONOMIKOA

Nafarroako Kirolaren Institutua (NKI) erakunde autonomo bat da, nortasun juridiko berekia eta bere helburuak betetzeko jarduteko gaitasun osoa dituen, eta Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentuari dago atxikia.

Martxoaren 17ko 18/2008 Foru Dekretuaren bidez onetsitako estatutuak ditu araubide.

NKI da Foru Komunitatean kirolaren alorreko politika planifikatu eta aurrera eramateko ardura duen erakundea, eta Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentuaren zuzendaritzapean eta zaintzapean jarduten du. Bere eskumenak garatzeko betetzen dituen eginkizunak hauek dira, besteak beste:


a) Nafarroako Kirolari buruzko uztailaren 5eko 15/2001 Foru Legeak esleitutakoak.

b) Atxikitako zentro eta instalazioen kudeaketa, bai eta haien mantentzea eta haietan eginiko inbertsioak ere.

c) Kirolaren alorreko laguntzen eta diru-laguntzen kudeaketa.

NKIk zuzendaritza-organoak dira Gobernu Kontseilua eta Zuzendaritza-Kudeatzailletza.

Honakoa da NKIren egitura organikoa:



NKlren baliabide ekonomikoak honako hauek osatzen dituzte:

a) Atxikita dituen ondasun eta eskubideetatik eratorriak direnek.

b) Nafarroako aurrekontu orokorren kargura eginiko ekarpenek.

c) Entitateek eginiko borondatezko ekarpenek.

c) Aplikatzekoak diren xedapenen arabera, jasotzea baimenduta duen diru-sarrerak, ohikoak eta bereziak.

Honakoak izan ziren 2009. urterako aurreikusitako NKlren diru-sarrerak eta gastuak:

DIRU-SARRERAK	Hasierako aurreikuspena
Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	250.400
Transferentzia arruntak	615.001
Ondarearen diru-sarrerak	5.000
Kapital-transferentziak	1
Diru-sarrerak, guztira	870.402

	Hasierako kreditua
Langile-gastuak	2.788.061
Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea	6.709.702
Transferentzia arruntak	8.129.675
Inbertsioak	10.111.252
Kapital-transferentziak	4.826.492
Gastuak, guztira	32.565.182

NKla kontabilitate publikoko araubideari lotuta dago.

III.2 "KIROLA SUSTATZEA" IZENENKO 940. PROGRAMAREN HELBURUAK

NKla da "Kirola sustatzea" deritzon 940.

aurrekontu-programaren arduraduna (programa hori Nafarroako aurrekontu orokorretan sartuta dago).

Programa hori honako lau proiektuetan banaturik dago:

Proiektuaren kodea	Proiektuaren izena	Unitate arduraduna:
940000	Programaren jarduera orokorrak.	NKI, Idazkaritza Nagusia eta Kide Anitzeko Organoak
940001	Kirol azpiegiturak	Kirol azpiegituren zerbitzua
940002	Kirol-egitearen sustapena	Kirol Zuzendariordetza
940003	Kirolaren kide anitzeko organoak	Kirolaren Idazkaritza Nagusia eta Kide Anitzeko Organoak

NKlko unitate organiko bakoitzari esleituriko "Kirolaren Sustapena" programaren helburuak honako hauek dira:

Kirol Zuzendariordetza

– Kirol-egitearen sustapena
– Emaitzak hobetzea kirol federatuan eta goimailako lehiakoan.

Idazkaritza Nagusiaren eta Kide Anitzeko Organoen Zerbitzua

– Bulego zentralak eta bertako ekipamenduak segurtasunari eta arrisku-prebentzioari dagokien araudiari egokitzea.

– NKlaren ekintzei laguntzea

– Atxikitako kirol instalazioengatik Tuterako Udalari bideraturiko kontraprestazioa koordinatzea.

– NKlak zerbitzuari atxikita dituen kide anitzeko organoen jarduera koordinatu eta aurrera eramatea.

Azpiegituren Zerbitzua.

– Zentro berekietan eta beren ekipamenduekin araudia bete dezaten eta egoera egoki, funtzional eta modernoan iraun dezaten lortzea.

– Kirola modu orokortuan eta arrazionalen egiten dela lortzea, instalazio moderno eta funtzionala.

– Kirol-instalazioen sarea arrazionalizatzea eta lurralde-banaketaren ikuspegitik orekatzea.

Helburuak erdiesteko ekintzak definitzen dira, bai eta, helburu batzuen kasuan, horiek neurtzeko adierazleak ere.

II.3 ARAUDIA

NKlari 2009an aplikatzekoa zaion araudia honako lege- eta erregelamendu-xedapenek osatzen dute, besteak beste:

Nafarroako Kirolari buruzko uztailaren 5eko 15/2001 Foru Legea

2009ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 24ko 21/2008 Foru Legea.

Apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legea, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzkoa.

Azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legea, Dirulaguntzei buruzkoa.

Ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legea, Kontratu Publikoari buruzkoa.

Abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legea, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzkoa.

16/200/ Foru Dekretua, martxoaren 17koa, NKlaren estatutu berriak onesten dituena.

Abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bategina onesten duena, bai eta haiek garatzeko xedapenak ere.

1994ko maiatzaren 6ko Agindua, Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorra onesten duena.

IV. FISKALIZAZIOAREN ONDORIOZTAPE-NAK

NKlaren fiskalizaziotik ateratako ondorioztape-nak ondoko hauek dira:

IV.1 AURREKONTU-BETETZEA

940. aurrekontu-programak, “Kirolaren Sustapena” izenekoak, muntazko alderdi guztietan islatzen du Nafarroako Kirolaren Institutuak 2009an aurrera eramandako jardura.

Gastuek 25.606.106 euro egin zuten, eta haien betetze-maila da kreditu bateratuen ehuneko 88koa. 2008ko ekitaldikoekin alderatuz gero, ehuneko 12 jaitsi ziren.

2009ko diru-sarrerak 797.909 euro egin zuten; aurreikuspen bateratuen % 89 bete zen. 2009ko diru-sarrerak aurreko ekitaldikoak baino ehuneko 50 txikiagoak izan ziren, eta horren arrazoia izan zen, batik bat, 2008an 554.092 euroko diru-sarrera izan zela, kirol-instalazioetarako diru-laguntza batena, zeina Murchanteko Udalak itzuli egin baitzuen.

IV.2 LEGEZKOTASUNA

Oro har, Nafarroako Kirol Institutuaren finantza-jardura legezkontasun-printzipioari jarraituz gauzatu da 2009an.

IV.3 AZTERKETA OPERATIBOA

Jarraian adierazten dira “Kirolaren Sustapena” izeneko 940. programaren azterketa operatibotik ateratako ondorioztapen orokor batzuk. Betiere aintzat hartu behar da mugak egon direla, aztertzean ea kudeaketa egin ote den efizientzia, eraginkortasun eta ekonomia irizpideen arabera.

Orokorrean, programaren helburuek zerikusia dute kirola sustatzearen helburuarekin, eta korrelazioa dute kasuko aurrekontu-kredituekin.

- Proiektua: Kirol-egitearen sustapena

Proiektu honen helburuak dira kirol-egitea sustatzea eta kirol federatua eta goi-mailako lehiaketa emaitzak hobetzea.

Zenbatekoaren aldetik garrantzitsuenak diren gastuek, zeinak azaldutako helburuak erdieste aldera eginiko ekintzei lotuta baitaude, behin betiko kredituen ehuneko 90 baino gehiagoko betetze-maila dute.

2009an kirol-egitea sustatzeko eginiko jardura nagusiak, eta haien gastua, honakoak izan ziren:

Kontzeptua	Gastua
Kirol-babesletzako jarduketak	2.778.000
Kirol-erakundeentzako laguntzak	2.320.072
Federazioentzako diru-laguntzak	2.294.390
Nafarroako kirol-jokoak	1.199.943
Eskoletako kirol-kanpainak	1.073.901

Ekintza horien bidez lortu nahi diren helburuak bete ziren, oro har, ezarritako aurreikuspenen gainetik, txosten honen eranskinean txertaturiko adierazle-taulan egiazta daitekeen bezala.

- Proiektua: kirol-azpiegiturak

Proiektu honen helburuak dira instalazio moderno eta funtzionaletan gauzaturiko kirol-egitea lortzea, Foru Komunitateko kirol-instalazioen sarea arrazionalizatuz eta lurralde-banaketaren aldetik orekatuz.

Horretarako, toki-entitateei 4.715.153 euro egiten zuten diru-laguntzak eman zitzaizkien, hots, 2008an baino ehuneko 58 gutxiago, 43 kirol-instalazioen eraikuntza edo hobekuntzarako (60 aurreikusten ziren). 107 espediente izapidetu ziren, aurreikusitakoak baino ehuneko 78 gehiago.

Halaber, ikuskapen- eta berrikuspen-ekintzak egin ziren kirol-ekipamendu eta -instalazioetan, eta jarduketa-kopuruari buruzko aurreikuspena bete egin zen, ondoko taulan egiazta daitekeen bezala:

Kontzeptua	Kopurua Burutua	Aurreikusiak
Kirol-ekipamenduen ikuskapenak	113	100
Kirol-instalazioen berrikuspena	1.411	1.389
Kirolguneen berrikuspena	3.539	3.684

V. FISKALIZAZIOARI BURUZKO IRUZKINAK

Atal honetan iruzkintzen eta zehazten dira NKI-ari buruzko 2009. urteko fiskalizaziotik ateratako ondorioztapenak.

V.1 AURREKONTU-BETETZEA

	Hasierako kreditua	Kreditu bateratua	Gastua
Langile-gastuak	2.788.061	2.642.297	2.642.295
Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea	6.709.702	6.368.695	5.963.691
Transferentzia arruntak	8.129.675	8.129.675	7.455.069
Inbertsioak	10.111.252	7.076.652	4.787.144
Kapital-transferentziak	4.826.492	4.826.492	4.757.907
Gastuak, guztira	32.565.182	29.043.811	25.606.106

DIRU-SARRERAK	Hasierako aurreikuspena	Aurreikuspen bateratua	Diru- sarrerak
Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	250.400	250.400	102.048
Transferentzia arruntak	615.001	636.994	692.163
Ondarearen diru-sarrerak	5.000	5.000	3.698
Kapital-transferentziak	1	1	0
Diru-sarrerak, guztira	870.402	892.395	797.909

Gastuek 25,61 milioi euro egin zuten, 2008an baino ehuneko 12 gutxiago. Emandako kapital-transferentzien beherakada da aldaketa horren arrazoi nagusia. Gastuen exekuzio mailak behin betiko kredituen ehuneko 88 egin zuen.

Osaera ekonomikoari dagokionez, transferentzia arruntei dagokie gastuen ehuneko 29; ehuneko 23 ondasun arruntak eta zerbitzuak dira; ehuneko 19, kapital-transferentziak; beste ehuneko 19, inbertsioak; eta ehuneko 10, langile-gastuak.

2009ko diru-sarrerek 797.909 euro egin zuten; hots, aurreikuspen bateratuen % 89. Ehuneko 87 dira jasotako transferentzia arruntak, eta ehuneko 13, tasak eta prezio publikoak.

2009ko diru-sarrerak 2008koak baino ehuneko 50 txikiagoak izan ziren.

Jarraian, zenbait aurrekontu-adierazle agertzen dira:

Adierazlea	2009	2008	Aldaketa
Kirol-gastua/Foru Komunitateko Administrazioaren guztizko gastua	%0,59	%0,66	%-12
Biztanleko kirol-gastu arrunta*	25,47	27,71	%-8
Biztanleko kapitaleko kirol-gastua	15,14	18,99	%-20
Gastu korrontearen estaldura, tasa eta prezio publikoekin	%0,61	%1,44	%-58
Gastu korrontearen estaldura, transferentzia arruntekin	%4,31	%4,13	%4

* 630.578 biztanle 2009ko urtarrilaren 1ean, 620.377 biztanle 2008ko urtarrilaren 1ean

V.2 LANGILE-GASTUAK

Langile-gastuek 2.642.295 euro egin zuten; 2008an baino ehuneko 22 gehiago. Gehikuntza horren arrazoiak da 2008an Nafarroako Gazteriaren Institutuaren aurrekontuari egotzi zitzaizkiola Nafarroako Kirolaren Institutuari zegozkion langile-gastuak, eta egoera hori 2009ko aurrekontuan zuzendu zen. ⁽¹⁾

Nafarroako Kirolaren Institutuaren 2009ko plantilla organikoak guztira 62 postu jasotzen ditu, 2008an baino bat gutxiago, eta horietako 60 dira funtzionarioen araubide juridikokoak, eta izendapen askeko zuzendaritza-karguak dira beste bi. Sei lanpostu huts daude, eta horietako bost dira langile kontratatuek beteak.

Funtzionario-postuak honelaxe daude mailaka sailkatuta:

Maila	2009
A	9
B	17
C	14
D	7
E	13
Guztira	60

2009an onetsitako enplegu-eskaintza publikoak bere baitan hartzen ditu maila ertaineko tituludun baten lanpostu bat eta zerbitzu orokorretako arduradunaren beste bat. Arduradunaren lanposturako deialdia 2009an egin zen, lekualdatze-lehiaketa berezi baten bidez, eta lehiaketa hutsik gelditu zen.

Bederatzi pertsonaren ordainsariak ikuskatu dira, pertsona horiek betetzen duten lanpostuaren nahiz pertsona horien inguruabar pertsonalen araberakoak. Alabaina, pertsona horien langile-espedienteek ez dituzte inguruabar pertsonal eta administrazio-egintza guztiak jasotzen.

Plantilla organikoan ez dira honako ordainsari-osagarriak jasotzen:

– “Larrabide” Kirol Teknikazioko Zentroko zerbitzu orokorren arduradunaren lanpostuaren txandakotasun-osagarria.

– Maila-osagarria eta lanpostu-osagarria Kirolaren Idazkaritza Nagusiaren eta Kide Anitzeko Organoen Zerbitzuko zerbitzu anitzetako bi postu-etako baterako.

Horri buruz, esan behar da Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuko Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiari dagokiola NKIko langileria-kudeaketaren eskumena.

(1) 3. alegazioa erantsita osaturiko paragrafoa.

V.3 ONDASUN ARRUNTEN ETA ZERBITZU-EN EROSKETA

Gastu hauek 5.963.691 euro egin zuten; 2008an baino ehuneko 3 gehiago.

Hurrengo kontusailen lagin bat berrikusi dugu:

Kontzeptua	Gastua
Kirol-babesletzako jarduketak	2.778.000
Kirol-jokoak	1.199.943

- Nafarroako kirol-jokoak

Nafarroako kirol-jokoak dira Nafarroako txapelketa ofizial bakarra, deituriko kirol eta kategorieta-ko nafar txapeldunak zehazten dituenena. Parte har dezakete Nafarroan eskolatuak diren edo egoitza bertan duten kirolari gutziek, baldin eta Nafarroako

Babestua	Kontratuaren data	Zenbatekoa	Aldia
Club Atlético Osasuna	2009ko apirilaren 28a	4.590.600	2009-/2011
S.D.C. San Antonio	2009ko otsailaren 27a	1.088.771	2009-2011

Bi kontratu horien xedea da “Nafarroako Erre-
suma. Nafarroa, Lur Anitza” turismo-marka ezagu-
taraztea.

Babeslearen ekarpenaren balioespen ekonomi-
koari dagokionez, bi kasu horietan, Komunikazioko
Zuzendari Nagusiaren txosten batean adierazten
da ezen, “zuzendaritza honen eta gaiari buruz
kontsultatutako adituen irizpide teknikoaren arabe-
ra, kopuru horiek arrazoizkoak dira, bai eta Nafa-
rroako Gobernuak lortuko dituen publizitate-kon-
traprestazioek merkatuan duten balioaren arabera
ere.”

Club Atlético Osasuna-ren kasuan, balioespe-
na egin zen abiapuntu gisa hartuz 2005eko abuz-
tutik 2006ko otsailera bitartean hedabide inprima-
tuetan eta telebistan klubari buruz ateratako
albisteen multzoak merkatu-prezioetan zeukan
zenbatespen ekonomikoa, zeina 1.039.951 euro-
koa baitzen.

Entitatea	Gastua	Emate-modua:
Arruntak:		
Kirol-federazioak	2.294.390	Deialdi publikoa.
Kirol-entitateak	1.870.072	Deialdi publikoa.
Kapitalekoak:		
Toki entitateak	1.533.661	Deialdi publikoa
Toki entitateak	2.141.000	Zuzeneko ematea

Kirol Entitateen Erregistroan inskribaturiko kirol-
klub bateko kide badira.

NKIk egiten du jokoetarako deialdia, kirol-fede-
razioen bidez; horiei ordaintzen dizkie jokoan anto-
lamenduan haiek laguntzen jardutearen ondorioz-
ko gastuak.

Ez da inon agertzen gutxienez ere hiru eskain-
tza eskatu izana bideo-grabaketa, -edizio eta -argi-
talpeneko zerbitzuen eta argazkiak egin eta haiek
hedatzeko zerbitzuen esleipen-hartzailea hauta-
tzeko. Gastu horiek 19.000 eurokoak izan ziren.

- Kirol-babesletza

Kirol-babesletzaren gastuak bost kirol-entitateri
dagozkie: C.A. Osasuna, S.D.C. San Antonio, S.D.
Itxako, C.D. Xota eta Nafarroako Pilota Federazioa

Babesletza-kontratu hauek aztertu ditugu:

San Antonio kirol eta kultur sozietatearen kasu-
an (zeinak “Reyno de Navarra San Antonio” izena
hartu baitzuen), ez da agertzen babesletza-onura-
dunari eginiko ekarpena nola kalkulatu den azal-
tzen duen justifikaziorik.

Bi babesletza-onuradunek beteta dauzkate
beren tributu-betebeharrak. Osasunak betebeharrak
hori betetzen du, zeren eta 2009ko urtarrilean,
babesletza-kontratua baino hiru hilabete lehenago,
18,8 milioi euroko bere zorra geroratzea eskatu
baitzuen.

V.4 TRANSFERENTZIA-GASTUAK

2009an, emandako transferentzia arruntek
8.907.547 euro egin zuten, eta kapitalekoek,
berriz, 11.348.060; hots, 2008an baino ehuneko 16
eta ehuneko 58 gutxiago, hurrenez hurren.

Honako entitate hauei emandako diru-lagun-
tzen lagin bat ikuskatu da:

Ondoren, ikuskapenean atzemandako akatsak azaltzen ditugu.

- Kirol-federazioentzako diru-laguntzak

41 kirol-federaziori eman zitzaizkien diru-laguntzak, beren jardueratik eratorritako gastuetarako. Diru-laguntzen zenbatekoak honako tarteetan agertzen dira:

Zenbatekoa	Federazio-kopurua
10.000-50.000	25
50.001-100.000	10
100.001-196.384	6

Deialdiaren oinarrietan zehazten dira diru laguntzeko moduko gastu ezberdinen irizpideak eta gehieneko ponderazioa. Federazioek portzentaje ezberdinak jasotzen dituzte kontzeptu beragatik, eta, haiekin sinaturiko hitzarmenetan jasotzen badira ere, federazio bakoitzerako ezarritako diru-laguntzaren portzentajea zehazte aldera aplikaturiko irizpideen justifikaziorik ez da inon agertzen.

Diru-laguntza kalkulatu da aurreikusitako gastuen arabera, eta ez da aldatzen jardueraren kostu erreala ezagutu ondoren; eta hori, federazio bakoitzarekin sinaturiko hitzarmenaren kontra, zein角度 ezartzen baita ezen behin betiko diru-laguntza zehaztuko dela exekutututako programen kostu erreala aintzat harturik.

Federazioek ez dute aurkeztu eginiko programa eta jarduerak azaltzen dituen oroitidazkirik.

2010eko aurrekontuari 88.482 euro egotzi zaizkio, 2009an emandako diru-laguntzetakoak.

- Nafarroako Kirolaren Institutuko diru-laguntzak, toki entitateen kirol-instalazioetan jarduketara bereziak egitekoak.

2009an, Nafarroako Kirolaren Institutuak 28 toki-entitaterentzako diru-laguntzak eman zituen, deialdi publiko baten bitartez, kirol-instalazioen finantzaketara bideratuak. Diru-laguntzen zenbatekoa obraren aurrekontuaren 100eko 60rainokoa zen, eta gehieneko muga, 120.000 eurokoa. Deialdira 69 toki-entitate aurkeztu ziren, eta haietako berrogeita bati diru-laguntza ukatu zitzaion; kasu batzuetan, aurrekontuan dirurik ez egoteagatik.

Bestalde, kirol-instalazioak egin edo hobetzeko zuzeneko diru-laguntzak eman zitzaizkien honako toki-entitateei:

Toki-entitatea	Zenbatekoa
Beriaingo Udala	1.000.000
Castejóngo Udala	230.000

Arradako Kontzejua	200.000
Fontellasko Udala	178.000
Oteitzako Udala	175.000
Cascanteko Udala	150.000
Pitillasko Udala	130.000
Andosillako Udala	78.000
Guztira	2.141.000

Diru-laguntza horiek Parlamentuko zuzenketa bat zela medio onetsi ziren, eta aurrekontuetan jaso ziren, "Toki-entitateen kirol-instalazioetako jarduketara bereziak" izeneko kontusailan, banan-banan zehaztu gabe ez zuzenketa barrenean sarturiko onuradunak, ez eta zuzenketa haietako bakoitzarentzat onetsiriko zenbatekoa ere.

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legeak 17.2 artikuluan jasotzen du zuzeneko laguntzak emateko aukera, diru-laguntza izendun baten bidezkoa, baldin eta aurrekontuetan adierazten bada zein den horrekin bilatzen den helburua eta onuradun zehatz baten aldeko kontsignazioa.

Laburbilduz, toki-entitateen kirol-instalazioetarako diru-laguntzak eman izan dira bai deialdi publiko bidez, bai zuzen-zuzenean. Nahiz eta zuzeneko ematea parlamentu-zuzenketa baten emaitza izan, bide horrek bertan behera uzten ditu lehia askearen, objektibitatearen eta berdintasunaren printzipioak, bai eta publizitate eta gardentasunaren ere, ez baitira aurrekontuetan izendun gisa jasotzen.

V.5 INBERTSIOAK

NKIren inbertsioek 4.787.144 euro egin zuten, eta kopuru horretatik ia guztiak helburu izan du kiroldegiaren pabiloi berria eraikitzea. Aurreikusitako hasierako kredituen ehuneko 47 bete zen.

Obra hau Nafarroa 2012 Planean sartuta dago, 60 milioi euroko zenbatekoarekin.

Kudeaketa- eta negozio-eredu bat prestatu zen, pabiloiaren kudeaketarako eredu ezberdinak aintzat hartzen dituena (publikoa edo pribatua den entitate baten bidezko kudeaketaren aldeko erabakia hartu zen), eta ustia ketaren negozioa aztertzen duena.

Zerga aurreko emaitzak, bost urteko eperako aurreikusiak, egoera "apal" deituriko baterako (urterako aurreikusitako ekintzen ehuneko 45 gauzatuko lirateke, harik eta jarduneko bosgarren urtean ehuneko 65era iritsi arte), honakoak dira:

	1. urtean	2. urtean	3. urtean	4. urtean	5. urtean
Diru-sarrerak	773.683	996.115	1.170.950	1.489.152	1.708.668
Gastuak	1.407.818	1.477.243	1.546.436	1.691.526	1.678.951
Emaizta garbia	-634.135	-481.128	-375.486	-130.374	29.717

Ibilgetua amortizatzeneko gastuak ez dira hor sartu, zeren eta aintzat hartu baitzen, soilik, pabiloiaren ustiaketat arduratuko zen entitate kudeatzailearen negozioa.

2009an, pabiloiaren gastuak 4.718.221 eurokoak izan ziren, eta NKIk izapideturiko kontratazio-espeditenteak honakoak izan ziren:

Kontzeptua	Lizitazioa	Esleipena	Gastua 2009an
Kirol-instalazioak eraistea, lurak mugitzea, zimendu - eta egitura-lanak	15.806.412	12.642.676 (2009/08/07)	2.914.315
Plataforma ezkutagarria, harmaila atzeragarriak eta eserlekuak diseinatu, fabrikatu eta muntatzea.	10.324.000	10.322.840 (2009/11/20)	0
ZNO-1 zonaren urbanizazioa eta II. fasearen eraikuntza -proiektuaren garapena	28.236.326	2010/05/27	

Bestetik, Sprin sozietate publikoari honako prestazio honen gaineko ardura eman zitzaion:

Kontzeptua	Zenbateko aurreikusia	Gastua 2009an
Pabiloia egiteko eta urbanizatzeneko obren kudeaketa teknikoak	3.441.518	1.803.907

- Kirol-instalazioak eraistea, lurak mugitzea, pabiloiaren zimendu- eta egitura-lanak.

NKIk kontratu hori esleitu zuen Europar Batasuneko atalasetik gorako prozedura irekian, 12.642.676 euroan, lizitazio-prezioaren ehuneko 20ko beherapenarekin.

- Plataforma ezkutagarria, harmaila atzeragarriak eta eserlekuak diseinatu, fabrikatu eta muntatzea.

NKIk kontratu hori lehia-elkarrizketaren prozeduraren bitartez lizitatu zuen. 10.322.840 euroko prezioan esleitu zen; hots, lizitazio-prezioaren kantitate ia berean.

Oro har, bi kontratazio-espeditenteen administrazio-izapidetzea, esleipena eta exekuzioa kontratu-legedia betez egin zen, eta gastuak justifikatuta, onetsita eta egokiro kontabilizatuta daude.

Alabaina, pleguetan ez da ezartzen proposamen teknikoak balioesteko puntuaziorik, baizik eta alderdi tekniko ezberdinei aurretiaz ponderatu gabeko kategoria kualitatiboak esleitzen zaizkie, eta kategoria horien puntuazioa ezartzen da aurkezturiko proposamenak konparatuz.

Bi kontratuetan, Sprin-ek kontraturiko enpresa batek egin zuen dokumentazio teknikoaren balioespena.

- Sprin-entzako enkargua, pabiloiaren proiektua urbanizatzeneko eta exekutatzeneko obren kudeaketa teknikorako.

2008ko apirilaren 28an, Nafarroako Gobernuak erabaki zuen Sprin sozietateak egin zitzala azpiegitura garatzeko beharrezkoak ziren ekintzak. Erabaki hori 2008ko abenduaren 29an deuseztatu zen, eta erabaki zen Nafarroako Kirolaren Institutuak eraiki zezala kiroldegia pabiloia, eta Sprin-ek egin zezala ustiapena abiarazteko eta eraikitzen proiektuaren kudeaketa teknikoak, bai eta funtzionatzen hasteko beharrezkoak ziren ekintzak ere.

Horretarako, enkargu bat onetsi zen, 2009ko maiatzean, eta bertan sartu ziren Sprin-ek hirugarrenen kontratazioen bitartez 2008ko ekitaldian jadanik eginiko prestazioak, 2008ko apirilko erabakia deuseztatu aurrekoak; esate baterako:

- 2008ko uztailean kontsultoretza-lana kontratatzea, proiektua diseinatu, garatu eta exekutatzeneko, 612.480 euroan.

- 2008ko abenduan kontratatzea pabiloia eraikitzeneko, haren ekipamendurako eta haren obrarazendaritzarako proiektuaren idazketa, 2.030.000 euroan.

Sprin-ek hirugarrenekin kontratatu zituen Administrazioak enkargatu zizkion ekintza guztiak; besteak beste, segurtasun eta osasuneko laguntza-kontrata. Sprin-ek Gobernuari 2009an fakturatu

zion gastutik, hots, 1.803.907 euro, ehuneko 97 da hirugarrenekin eginiko kontratazioena, eta gainerakoa, 56.589 euro, sozietate publikoaren langile-gastuak dira.

V.6 KIROL-INSTALAZIOETAKO DIRU-SARRE-RAK

Kirol-instalazioetako diru-sarrerek 96.690,07 euro egin zuten, 2008koek baino ehuneko 61 gutxiago. Behin betiko aurreikuspenaren ehuneko 40ko exekuzioa izan zuten.

- Larrabide estadioa

2009ko ekainaren 1ean emakida-kontratu bat sinatu zen, Larrabide estadioko igerilekua udasasioan kudeatu eta ustiatzeko (alegia, ekainaren 1etik irailaren 30era bitartean). Kontratua urtero luza daiteke (gehienez ere 29 luzapen), eta horren diru-kontraprestazioa 97.000 eurokoa da (BEZA barne), honela xehakaturia:

- Kanona, 60.000
- Birjarpen-inbertsioa, 15.000
- Gastu arrunta, 22.000

Ez da inon agertzen zerbitzua ustiatzeko proiektu bati administrazio-onespena eman izana. Prestaturiko proiektuak jasotzen ditu aurreko udasasoiko gastuak eta diru-sarrerak, bai eta 2009rako aurreikusitako gastuen adierazpen soila ere (gastu horiek ez dira justifikatu zerbitzuaren azterlan ekonomiko batean).

Ez da agertzen esleipena hartu zuen enpresak sasoiko ustiapen-kontua, oroitidazkia eta balantzeak aurkeztu izana.

- Guelbenzu josteta-zentroa.

Kontratua ekainaren 1ean sinatu zen, eta 2009ko abenduaren 30era bitarteko iraupena dauka, urtero luza daitekeena, gehienez ere hiru luzapenekin, eta 19.000 eurokoa du urteko kanoa, zeina urtero hobekuntza-obretan eta erosketetan berrinbertituko baita.

Kontratu hau presako bidetik izapidetu zen, nahiz eta jakin ezen aurreko kontratua, 2004an sinatua, 2009ko ekainean amaitzen zela.

Ez da ageri zerbitzua ustiatzeko proiekturik.

32.000 euroko bermea ezarri zen, kontratuaren balio kalkulatuaren ehuneko lau baino gehiagokoa, zeren eta berme gehiago ezarri baitziren, kontratu-betetetik eratorritako arriskuak estaltze aldera, eta bi berme-mota horiek ez ziren behar bezala bereizi.

V.7 JASOTAKO TRANSFERENTZIA ARRUNTAK

2009an, NKIk 692.163 euro jaso zituen, honako entitateen transferentzia arrunt gisa:

– 610.752 euro Estatutik, loteria- eta apustu-jokoetako partaidetzari zegozkionak. NKIk ez daki zein den partaidetzaren ehunekoa, ez eta diru-sarrera horiek nola zehazten diren ere.

– 22.977 euro Kirolen Kontseilu Nagusitik. Diru-laguntza honen zergatia da eskola-adinekoentzako Espainiako txapelketetan izandako parte-hartzea, eta bidaia-gastuak ordaintzea du xede. NKIk diru-laguntza hori ez du zuzenean eskatzen, ez eta, beraz, egiaztatzen ere jasotako diru-sarrerak egiazki direnik dagozkionak.

– 58.435, ikerketa-proiektuetarako.

V.8 “KIROLA SUSTATZEA” IZENENKO 940. PROGRAMAREN AZTERKETA OPERATIBOA.

“Kirola sustatzea” izeneko 940. programaren azterketa operatiboak murrizgarri izan du, mugei buruz txosten honek duen atalean adierazten den bezala, prestazio ezberdinen kostu osoa kalkulatzeko ahalbidetzen duen kostu-sistemarik ez egotea, bai eta, NKIren ekintza batzuetarako helburu zehatz eta neurgarririk definitu ez izatea.

Programaren helburuetako batzuk orokorrak dira, eta administrazio-izaerako jardueri dagozkie, eta ez, ordea, erdietsi beharreko emaitzei; horregatik, ez daude kuantifikatuta, eta haien neurketarako adierazlerik ere ez da ezarri.

Alabaina, eta prestazio bakoitzari kostu guztiak egozteko ezinezkoa bada ere, NKIk, Nafarroako 2009ko kontu orokorrekin batera, informazioa aurkeztu zuen, programako helburuen betetze-mailari buruzkoa, eta “kirola sustatzea” aurrekontu-programako proiektu batzuetako jarduerari buruzko ondorioztapen orokor batzuk lortu ahal izan dira.

Eranskinean erakusten da “kirol-egitearen sustapena” eta “toki azpiegiturak” proiektuen aurrekontu-betetzea, eta, NKIk helburu-neurketarako ezarri zituen adierazleetatik abiatuz, 2009rako aurreikusitako eta urte horretan betetako helburuak, bai eta haien konparazioa 2008an lortutakoekin ere.

- Proiektua: Kirol-egitearen sustapena

Proiektu honen helburuak dira kirol-egitea sustatzea eta kirol federatua eta goi-mailako lehiakoa emaitzak hobetzea.

Helburu horien ardura duten unitateak honako hauek dira: Kirol Zuzendariordetza, Kirolaren Sustapenerako Atala, Entitateen eta Kirol-errendimenduen Atala, eta Kirolaren Azterlan, Ikerketa eta Medikuntzako Zentroa.

Kirol-egitearen sustapenaren proiektuaren gaineko ardura duten unitateei esleituriko langile-gastuak 1.229.531 eurokoak izan ziren; alegia, 2008an baino ehuneko 16 handiagoak. Kirol-egitea sustatze aldera eginiko jardueren guztizko gastua 12.036.345 eurokoa izan zen 2009an, 2008an gastaturiko 13.598.116 euroen aldean. Beraz, langile-gastua, jarduera bakoitzeko, 0,10 eurokoa izan zen 2009an, eta 0,08 eurokoa 2008an.

Zentro berekien mantentze- eta hornidura-gastuak (Kirol Etxea, Larrabide Estadioa eta Guelbenzu zentroa) 979.989 eurokoak izan ziren; hots, 2008an baino ehuneko 11 txikiagoak. Zentro horien egiazko erabilerak ez ditu iritsi aurreikusitako zifrak, ez eta 2008an lorturiko emaitzak ere, txosten honi erantsitako koadroan erakusten denez.

Kirol-egitea sustatzeko eginiko jarduera nagusiak honako hauek izan ziren:

Helburua: kirol-egitearen sustapena	Hasierako kreditua	Gastua	Betetakoa, %	Gastu-aldaketa, 2009/2008
Kirol-babesletzako jarduketak	2.858.000	2.778.000	% 97	% 1
Kirol-erakundeentzako laguntzak	2.680.000	2.320.072	% 87	% -5
Federazioentzako diru-laguntzak	2.450.000	2.294.390	% 94	% -7
Nafarroako kirol-jokoak	1.300.000	1.199.943	% 92	% 16
Eskoletako kirol-kanpainak	1.090.434	1.073.901	% 98	% 7
Toki entitateentzako laguntzak, kirol-jardueretarako	500.000	500.000	% 100	% -51
Miguel Indurain Fundazioa	285.300	285.300	% 100	% 0
Kirolarientzako laguntza medikoa	105.512	98.422	% 93	% 62
Erremonterako fundazioa	72.000	72.000	% 100	% -56
Prestakuntza- eta ikerketa-jarduerak	77.312	56.650	% 73	% -30
Boscós futbol-txapelketarako laguntza	45.000	45.000	% 100	2008an, ez

Jarraian, aurreikusitako helburuen neurketarako ezarritako adierazleen emaitza batzuk aztertuko ditugu (ikus txosten honen eranskina).

Bost kirol-entitateekin egin zen babesletza.

Babesletzarik ez daukaten kirol-entitateentzako laguntzak kirol-klubei ematen zaizkie, txapelketa ez-profesional nazionaletan, autonomia erkidegoen artekoetan eta nazioartekoetan parte har dezaten. 2009an parte hartu zuten lehen maila nazionalako 31 txapelketatan, beste maila bateko 195 halaber nazionaletan, eta nazioarteko 15etan, horiek guztiak 2008koak baino zertxobait baxuagoak, nahiz eta 2009rako aurreikusitakoak baino goragokoak, lehen maila nazionalakoak izan ezik.

Diru-laguntzak eman zitzaizkien 41 kirol-federaziori, zeinek 1.025 jarduera egin baitzituzten, guztira 170.000 parte-hartzaileekin, eta 2009rako aurreikusitako emaitzak erdietsi eta 2008an lorturikoak gainditu ziren.

Nafarroako kirol-jokoei dagokienez, parte-hartzaileek, modalitateek eta federazioek 2009rako aurreikuspenak eta 2008an lorturiko emaitzak gainditu zituzten, salbu eta eskolen parte-hartzearen atalean.

Hala toki-entitateekin nola kirol-entitateekin antolaturiko eskoletako kirol-kanpainetan, parte hartu zuten gazteak aurreikusitakoak baino ehuneko 11 gehiago izan ziren, eta, halaber, 2008an baino ehuneko 11 gehiago. Guztira, 170 ikastetxek parte hartu zuten, nahiz eta aurreikuspena 159k parte-hartzekoa izan. 2008an, 220 ikastetxe parte-hartzaile izan ziren.

Kirol-balioak sustatzeko kanpainak ez zituzten lortu aurreikusitako emaitzak, ez eta 2008an lorturikoak ere; horrela, 8.000 eskola-ikaslek parte hartu zuten: aurreikusitakoehuneko 53, eta 2008an baino ehuneko 50 gutxiago.

Kirol-jardueretarako diru-laguntzak jaso zituzten Nafarroako toki-entitateak honakoak izan ziren: 68 udal (84 aurreikusi ziren, eta 2008an 91k jaso zituzten laguntzak) eta 10 kirol mankomunitate (aurreikusitako guztiak, eta 2008ko berberak). Emakumeen parte-hartzeari zegokion helburua ez zen lortu: parte-hartze hori aurreikuspenen ehuneko 78koa izan zen. Hirugarren adineko parte-hartzaileak izan ziren aurreikusitakoehuneko 155.

Ez dago daturik toki entitateek egiten dituzten jardueren eta haietan parte hartzen dutenen kopurua kalkulatzeko.

Miguel Indurain fundazioarentzako laguntza erabili zen 107 kirolariri bekak emateko; alegia, aurreikusitakoak baino ehuneko zazpi gehiago, eta 2008an baino ehuneko bederatzi gutxiago.

Kirolarientzako laguntza medikoari dagokionez, 1.669 azterketa mediko egin ziren, aurreikusitakoehuneko 88, eta 2008an baino ehuneko hiru gutxiago, guztira 350 goi-mailako kirolari federaturari.

Erremonterako fundazioari dagokionez, aurreikusitako bost programak gauzatu ziren, 2008an hiru exekutatu baziren ere.

NKIk kirol-egitearen sustapenarekin zerikusia duten prestakuntza- eta ikerketa-jarduerak ere antolatzen ditu. 2009an, 1.200 onuradun izan ziren, 2008an baino ehuneko 111 gehiago, eta aurreikusitakoehuneko 80. Bi ikerketa-proiektu izan ziren (lau, 2008an). Jarduera horien barranean kokatzen da haurren obesitateari buruzko kanpaina, non 800 haurrek eta 14 ikastetxek parte hartu baitzuten.

2009an laguntza eman zitzaion Boscots txapelketaren kirol-sustapeneko entitateari. 2.714 parte-hartzaile izan ziren: aurreikusitakoak baino ehuneko 4 gehiago. Emakumezkoen kategorian, bost ekipo parte-hartzaile izan ziren, zazpi aurreikusten baziren ere.

- Proiektua: kirol azpiegiturak

Kirol Azpiegituren Zerbitzuaren ardurapekoa den proiektu honen helburuak dira instalazio moderno eta funtzionaletan gauzaturiko kirol-egitea, orokortua eta arrazionala, lortzea, Foru Komunitateko kirol instalazioen sarea arrazionalizatuz eta lurralde-banaketaren aldetik orekatuz. Horretarako, NKIk kirol instalazioetarako diru-laguntzak ematen ditu, kirol-ekipamenduen ikuskapenak egiten ditu eta kirol instalazioak berrikusten ditu.

2009an zehar 4.715.153 euro egiten zuten diru-laguntzak eman ziren, 2008an baino ehuneko 58 gutxiago, 43 kirol-instalazioen eraikuntza edo hobekuntza finantzatzeko (60 finantzatzeko aurreikuspena zegoen), eta 107 espediente izapidetu ziren: aurreikusitakoak baino ehuneko 78 gehiago.

Kirol ekipamenduen 113 ikuskapen egin ziren (100 zeuden aurreikusita), 1.411 kirol instalazio aztertu ziren (2008an aztertuak baino ehuneko bat gehiago), bai eta 3.684 kirolgune ere (2008an baino ehuneko hiru gehiago).

VI. GOMENDIOAK.

Atal honetan jasotzen dira NKIren 2009ko fiskalizaziotik ateratako ondorioztapenik garrantzitsuenetatik eratorritako gomendioak.

- *NKIren prestazioen kostu osoa kalkulatzeko sistema bat ezartzea; horretarako, programako jarduera orokorren kostuak proiektu ezberdinen artean banatu beharko dira, ezarriko den banaketa-moduluari jarraikiz. Kostu-kalkulu horrek beharrezko egiten du Foru Administrazioaren kontabilitate-sistema osatzea, zerbitzu publikoen kostuari buruzko informazioa eskaini dezan.*

- *“Kirolaren sustapena” aurrekontu-programan adierazitako helburuak bat etorraztea 2010-2015 eperako Nafarroako Kirolaren Plan Estrategikoan ezarritako helburuekin.*

- *Plantilla organikoan jasota utzi behar dira lanpostu guztien osagarriak, eta langileen espedienteak osatu egin behar dira kasuko langilearen inguruabar pertsonal eta harekiko administrazio-egintza guztiekin.*

- *Parlamentuko zuzenketa bat betetze aldera toki-entitateei zuzenean ematen zaizkienean kirol-instalazioetarako diru-laguntzak, publizitate- eta gardentasun-printzipioak errespetatu behar dira, eta zuzeneko bide horrek salbuespenezkoa behar du izan, Diru-laguntzei buruzko Foru Legeak diru-laguntzen emateari dagokionez ezartzen dituen lehia-, objektibotasun- eta berdintasun-printzipioak bertan behera uzten diren heinean.*

- *Kirol-federazioei beren gastuak finantzatzeko emandako diru-laguntzaren portzentajea zehazteko erabilitako irizpideak justifikatu behar dira. Behin betiko diru-laguntza kitatu behar da betetako programen kostu erreala kontuan harturik.*

- *Aztertzea zer-nolako efizientzia eta ekonomia duen Sprin enpresa publikoari prestazio batzuen egitea enkargatzeak baldin eta prestazio horiek ia guztiak hirugarrenekin kontratatu behar baditu.*

- *Kategoria kualitatiboak ipintzen zaizkien esleipen-irizpideen ponderazioa ezartzea.*

- *Gutxienez ere hiru enpresarekin kontsultatu eta negoziatzea 15.000 eurotik (BEZa kanpo) gorako zenbatekoa duten hornidura- eta laguntza-kontratuen kasuan.*

- *Guelbenzu zentroan eta Larrabide estadioan emandako zerbitzu kontratatuen ustiaketa-proiektuak onestea.*

Txosten hau, araudi indardunak ezarritako izaipideak bete ondoren, auditore M^a Asunción Olaechea Estanga andreak proposatuta egin da, bera izan baita lan honen arduraduna.

Iruñean, 2011ko otsailaren 17an

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas

**ERANSKINA: "KIROLAREN SUSTAPENA" IZENeko 940. AURREKONTU-PROGRAMAREN
ADIERAZLEAK ETA PROGRAMA HORREN AURREKONTU-BETETZEA**

940002 PROIEKTUA: KIROL-EGITEAREN SUSTAPENA					
Helburua:	Gauzatu a	Aurreikus ia	Gauzatua	Gauzatzear en ehunekoa	Aldak. 2008koare n gainean
Kirol-egitearen sustapena	2008	2009	2009		
Kirol-jokoak:					
***Parte-hartzaileak	17.013	17.013	18.190	%107	% 7
***Modalitateak	41	41	42	%102	%2
***Federazioak	25	27	27	% 100	%8
***Eskola-ikasleen parte-hartzea	%47	%40	%43	%108	%-9
Eskola-ikasleen kirola sustatzeko kanpainak					
***Gazte parte-hartzaileak	8.527	8.527	9.496	%111	%11
***Parte hartu duten ikastetxeak	220	159	170	%107	%-23
***Ikastetxeen parte-hartzea	%35	%56	%60	%107	%71
Kirolaren balioak sustatzeko kanpainak					
***Eskola-ikaste parte-hartzaileak	16.000	15.000	8.000	%-53	%-50
Escoltako kirolaren proiektu pilotua					
***Ikastetxeak		10	14	%140	
Toki entitateentzako diru-laguntzak					
***Udalak	91	84	68	%81	%-25
***Kirol-mankomunitateak	10	10	10	% 100	% 0
*** Eginiko jarduerak	2.062	2.050	daturik ez		
***Parte-hartzaileak	196.500	195.000	daturik ez		
*** Hirugarren adinekoen taldeak		22	43	% 195	
*** Hirugarren adinekoen taldeak		415	643	% 155	
*** Emakumeen taldeak		205	150	% 73	
*** Emakumezko parte-hartzaileak		5.811	4.550	% 78	
*** Emakumeekiko jarduera fisikoa, eskaera eginiko udalak		38	45	% 118	
*** Emakumeekiko jarduera fisikoa, eskaera eginiko mankomunitateak		7	7	% 100	
Miguel Induráin Fundazioarentzako laguntza					
*** Patronatua eta Batzorde Exekutiboan parte hartzea	3	2	2	% 100	% -33
***Kirolarientzako beka	117	100	107	%107	%-9
***Teknikarientzako beka	49				% -100
*** Programa bereziak	3	4	3	% 75	% 0
Erremonte Fundazioarentzako laguntza					
*** Programak	3	5	5	% 100	% 67
Boscos futbol-txapelketarako laguntza					
***Parte-hartzaileak		2.600	2.714	% 104	
*** Ekipo parte-hartzaileak, guztira		114	112	% 98	
*** Ekipo parte-hartzaileak, emakumezkoen kategoria		7	5	% 71	
Nafarroako boluntarioen elkarreentzako laguntza					
*** Boluntarioak lortzeko jardunaldiak		5	8	% 160	
*** Boluntario berriak		20	40	% 200	
*** Kirol-ekitaldietako jarduketa		15	15	% 100	
Prestakuntza- eta ikerketa-jarduerak antolatzea					
*** Onuradunak	570	1.500	1.200	% 80	% 111
*** Ikerketa-proiektu berriak	4	3	2	% 67	%-50
*** Doktore-tesiak	4	3	6	% 200	% 50
*** Lehen Hezkuntzako ikastetxeak, haur- obesitateari buruzko kanpaina	15	14	14	% 100	% -7
*** Haur-obesitateari buruzko kanpainen parte harturiko haurrak		1.000	800	% 80	
Kolektibo behartsuenetarako kanpainak					
*** Hirugarren adinekoentzako kanpainetan parte hartutako taldeak		40	43	% 108	
*** Hirugarren adinekoentzako kanpainetako parte-hartzaileak		600	643	% 107	
Kirol-eragileentzako prestakuntza					
***Parte-hartzaileak		800	868	% 109	
*** Prestakuntza-jarduerak		50	63	% 126	
Zentro berekien sustapena, kontrola eta jarraipena					
*** Kirolaren Etxea: ohiko erabilerak	35.000	40.000	33.240	% 83	% -5
*** Larrabide Estadioa: ohiko erabilerak	207.858	260.000	172.139	% 66	% -17
*** Guelbenzu zentroa: ohiko erabilerak	77.282	100.000	81.122	% 81	% 5

940002 PROIEKTUA: KIROL-EGITEAREN SUSTAPENA

Helburua: Kirol federatua eta goi-mailako lehiakoan emaitzak hobetzea lortzea	Gauzatu	Aurreikusia	Gauzatu	Gauzatzearen ehunekoa	Aldak. 2008koaren gainean
	2008	2009	a 2009		
Kirol-teknifikaizorako eta Nafarroako selekzioentzako laguntzak					
*** Teknikazio-zentroko programak:	9	10	10	% 100	% 11
*** Federazioak teknifikazio-zentroan	20	11	10	% 91	% -50
*** Teknikazio-programetako kirolariak		150	139	% 93	
*** Nafarroako selekzioentzako kirolariak	1.236	1.150	1.034	% 90	% -16
Kirolari federatuentzako medikuntza-zerbitzua					
*** Medikuz-azterketak	1.728	1.900	1.669	% 88	% -3
*** Federazioak	40	40	40	% 100	% 0
*** Goi-mailako kirolari indibidualak.	250	250	250	% 100	% 0
*** Goi-mailako klubetako kirolariak	100	100	100	% 100	% 0
Federazioentzako diru-laguntzak					
*** Kirol-federazioak	41	41	41	% 100	% 0
*** Klubak	1.032	1.000	1.025	% 103	% -1
*** Klub afiliatuak	156	153	155	%101	% -1
*** Federatuak	64.743	62.000	63.248	%102	% -2
*** Jarduerak	910	1.002	1.025	% 102	% 13
*** Jardueretan parte hartzea	112.000	166.000	170.000	% 102	% 52
*** Lehiaketak	210	24	25	% 104	% -88
Kirol-erakundeentzako laguntzak					
*** Lehenengo maila nazionalako txapelketak	33	33	31	% 94	% -6
*** Nazionalak diren beste txapelketa batzuk	221	191	195	% 102	% -12
*** Nazioarteko txapelketak	16	11	15	% 136	% -6
Kirol-ekitaldi eta -ikuskitzeentzako laguntzak					
*** Kirol-klubek ekitaldiak antolatzea	116	90	54	% 60	% -53
*** Toki entitateek ekitaldiak antolatzea	228	73	265	% 363	% 16
Laguntzak, bestelako laguntza arruntik jasotzen ez dutenentzakoak					
*** Kirol-entitateak	18	19	20	% 105	% 11
*** Kirolariak	13	19	19	% 100	% 46

940001 PROIEKTUA: KIROL AZPIEGITURAK

Helburua: kirol-egite orokortu eta arrazionala lortzea, instalazio moderno eta funtzioaletan gauzatua.	Gauzatu	Aurreikusia	Gauzatu	Gauzatzearen ehunekoa	Aldak. 2008koaren gainean
	2008	2009	a 2009		
Kirol instalazioentzako diru-laguntzak					
*** Zenbatekoa	11.271.585	4.781.492	4.715.153	% 99	% -58
*** Kirol instalazioak		50	37	% 74	
*** Kirol-instalazioak		10	6	% 60	
*** Espedienteak		60	107	% 178	
Kirol-ekipamenduak ikuskatzeko plana garatzea					
*** Ikuskapenak		100	113	% 113	

Helburua: Foru Komunitateko kirol-instalazioen sarea arrazionalizatzea eta haren lurralde-hedapen orekatua lortzea.	Gauzatu	Aurreikusia	Gauzatu	Gauzatzearen ehunekoa	Aldak. 2008koaren gainean
	2008	2009	a 2009		
Kirol-instalazioak ikuskatzea					
*** Kirol-instalazioak	1.397	1.389	1.411	% 102	% 1
*** Kirol-guneak	3.589	3.539	3.684	% 104	% 3

940000 PROIEKTUA: PROGRAMAKO JARDUERA OROKORRAK			
Gastuak			
	Hasierako kreditua	Kreditu bateratua	Gastuak
Langileen gastuak	1.460.727	1.271.742	1.271.742
Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea	395.600	312.300	255.485
Transferentzia arruntak	60.750	60.750	52.841
Inbertsioak	53.252	18.652	18.560
Gastuak, guztira	1.970.329	1.663.444	1.598.628
Diru-sarrerak			
	Hasierako aurreikuspena	Aurreikuspen bateratua	Diru-sarrerak
Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	3.900	3.900	5.358
Transferentzia arruntak	600.000	600.000	610.752
Ondarearen diru-sarrerak	5.000	5.000	3.698
Diru-sarrerak, guztira	608.900	608.900	619.808
940001 PROIEKTUA: KIROL AZPIEGITURAK			
Gastuak			
	Hasierako kreditua	Kreditu bateratua	Gastuak
Langileen gastuak	106.778	141.022	141.022
Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea	172.838	112.838	108.993
Inbertsioak	10.000.000	7.000.000	4.718.221
Kapital-transferentziak	4.781.492	4.781.492	4.715.153
Gastuak, guztira	15.061.108	12.035.352	9.683.389
Diru-sarrerak			
	Hasierako aurreikuspena	Aurreikuspen bateratua	Diru-sarrerak
Kapital-transferentzia, Kirolen Kontseilu Nagusia	1	1	0
Diru-sarrerak, guztira	1	1	0
940002 PROIEKTUA: KIROL-EGITEAREN SUSTAPENA			
Gastuak			
	Hasierako kreditua	Kreditu bateratua	Gastuak
Langile-gastuak	1.220.556	1.229.532	1.229.531
Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea	6.092.762	5.914.755	5.571.352
Transferentzia arruntak	8.068.925	8.068.925	7.402.228
Inbertsioak	58.000	58.000	50.362
Kapital-transferentziak	45.000	45.000	42.754
Gastuak, guztira	15.485.243	15.316.212	14.296.227
Diru-sarrerak			
	Hasierako aurreikuspena	Aurreikuspen bateratua	Diru-sarrerak
Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	246.500	246.500	96.690
Transferentzia arruntak	15.001	36.994	81.411
Diru-sarrerak, guztira	261.501	283.494	178.101
940003 PROIEKTUA: KIROLAREN KIDE ANITZEKO ORGANOAK			
	Hasierako kreditua	Kreditu bateratua	Gastuak
Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea	48.502	28.802	27.860

NAFARROAKO KIROLAREN INSTITUTUAK BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI EGINIKO ALEGAZIOAK

SARRERA

Nafarroako Kirolaren Institutuak, lehenik eta behin, eskerrak eman nahi dizkie Comptos Ganberako teknikari-langileei eta auditoreari, beren jardun saiaturerengatik, bai eta Nafarroako Kirolaren Institutuaren beraren bozeramailearekin izandako harreman aisearengatik ere, 2009ko ekitaldi ekonomikoko egintza fiskalizatuak zehaztu eta argitzezari dagokionez.

Komeni da, orobat, nabarmentzea ezen 2009ko ekitaldi ekonomikoan eginiko fiskalizazioan azpimarratu egiten dela, oro har, Nafarroako Kirolaren Institutuaren jarduera finantzarioa legezkonta-sun-printzipioaren abaroan gauzatu dela.

Halaber, azpimarratzeko modukoa da txosten horrek adierazten duela programaren helburuek, orokorrean, zerkusia dutela kirola sustatzearen helburuarekin, eta korrelazioa dutela kasuko aurrekontu-kredituekin.

Azkenik, aipaturiko fiskalizazio-txostenak ohar-tarazten du kirol-egitearen sustapenean gauzaturiko ekintzekin bilaturiko helburuak bete zirela, orokorrean, erabilitako aurreikuspenen gainetik, txostenean erantsitako adierazle-taularen bidez egiazta daitekeenez.

1.- II. ATALARI –FISKALIZAZIOAREN HELBURUAK ETA NORAINOKOA– DAGOKIONEZ:

Auditoria operatiboa egiteari dagokionez aipaturiko mugak ezin zaizkio Nafarroako Kirolaren Institutuari egotzi, hura mugatzen baita Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak behar dituen datuak eta adierazleak eskaintzera, kasua denean, zeinak gero batean onesten baitira, dagokion ekitaldi ekonomikoko Aurrekontuei buruzko Foru Legearen testuinguruan. Ondorioz, Foru Administrazioaren kontabilitate-sistema aldatu beharra legoke, behin-behineko fiskalizazio-txostenaren gomendioetan adierazten den bezala.

2.- V.1 ATALARI –AURREKONTU-BETETZEA– DAGOKIONEZ:

Txostenean adierazten da ezen 2009ko diru-sarrerak 2008koak baino % 50 txikiagoak izan zirela, eta fiskalizazio-txosteneko IV.1 atalean, aurrekontu-betetzeari buruzkoan, adierazitakoa errepikatzen da: soilik aipatzen da Murchanteko Udalak eginiko itzulketa, baina behin ere ez dira aipatzen horretara behartu zuten ohiz kanpoko arrazoiak, alegazioen bigarren puntu honetan aipagai hartu dugun V.1 atal horretan.

Ondorioz, komeni da nabarmentzea ezen Nafarroako Kirolaren Institutuak (NKI) ohiz kanpoko diru-sarrera hauek izan zituela 2008an:

– 66.210 euro, Azagrako Udalak bueltatuak, eta 554.092 euro, Murchanteko Udalak bueltatuak; bi diru-sarrera horiek, aurreikusi gabeak, kapital-transferentziagatiko diru-laguntza exekutatu gabean zenbatekoak itzultzearen ondoriozkoak izan ziren.

– Halaber, Larrabide estadioak 2009an baino 149.433 euro gehiagoko diru-sarrerak izan zituen. Horren arrazoia izan zen 2009an udako kudeaketa Masquatro enpresari esleitu izana, laguntza teknikoko kontratu gisa, eta horren truke, udan ez zen Larrabide estadioko langileen ordezkorik jarri, eta horrek berekin ekarri zuen NKIren aurrekontuaren I. kapituluaren aurrekia sortzea.

3.- V.2 ATALARI –LANGILERIA-GASTUAK– DAGOKIONEZ:

Komenigarria da esatea aurrekontuetako langile-gastuei buruzko 1. kapituluaren arloan Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusia dela organo eskuduna, eta, ondorioz, ohar-taraztea Nafarroako Kirolaren Institutuak ez duela sarbiderik bere langileen nominetara.

Langile-gastuen zenbatekoari dagokionez (2009an % 22 handiagoa izan da 2008an baino), datu horrek sortu digun harriduraren ondorioz, iragan otsailaren 3an Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusiari gai horri buruzko azalpena eskatu genion. Informazioa idatziz igorriko zigitela esan ondoren, hona hemen gaur, otsailaren 9an, eman diguten informazioa:

2007ko irailaren 26an, erakunde honek Nafarroako Kirol eta Gazteria Institutua izena zuela, Funtzio Publikoak plantillaren kostuak zehaztu zituen –3.081.871,63 euro ordainsariei zegokienez eta 661.152,79 euro Gizarte Segurantzako kostuei zegokienez–, eta horrela, aurrekontu-proiektuan izapidetu ziren, aurrekontu-prestaketarako ezarritako epeak betetzeko.

Geroago, 2007ko urriaren 10ean, NAO-n argitaratu zen irailaren 24ko 216/2007 Foru Dekretua, Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutua Nafarroako Kirolaren Institutua bihurtu zuena.

Hori zela-eta, 2008an kirol-arloari behin betikoz esleituriko zenbait langile Nafarroako Gazteria Institutuari egotzi zitzaizkion, aurrekontuen aldetik. Beraz, Nafarroako Kirolaren Institutuari buruzko 2008 eta 2009ko auditoria bat egitean, kontuan hartu behar da Nafarroako Gazteria Institutua, zeren eta gastu-gehikuntzaren jatorria baitatza Nafarroako Gazteria Institutua eratu zenean aurre-

kontu-esleipena argiro definituta ez zeukaten unitate batzuei atxikiak zeuden pertsona batzuen aurrekontu-esleipenean.

Beraz, 2009ko aurrekontuan, zeina 2008an erabateko aurrekontu-bereizketarekin prestatu baitzen, Funtzio Publikoak desbideraketak zuzendu egin zituen, eta gastu erreala Nafarroako Kirolaren Institutuari egotzi zion; horrenbestez, zifretan iturrazko –baina ez benetako– gehikuntza bat eragin zen I. kapituluko aurrekontuan, langileria-gastuei buruzkoan; egiazki, antzeko gutxitzea eragiten da Nafarroako Gazteria Institutuaren aurrekontuan.

Fiskalizazio-txostenak halaber adierazten du plantilla organikoan ez direla jasotzen ordainketa-osagarri batzuk, zerbitzu orokorretako arduradun baten txandakotasunari eta zerbitzu anitzetako arduradun postuetako baten mailari eta lanpostuari dagozkionak.

Beharrezkoa gertatzen da behin eta berriro argitzea ezen plantilla organikoa, fiskalizazio-txostenean adierazten den bezala, Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusiaren eskumenekoa dela, eta zuzendaritza hori dela plantilla zehaztu eta NAOan argitaratzen duena. NKIk ez dauka langileen nominen edukiaren berri, ez baitauka nomina horietarako sarbiderik, Funtzio Publikoaren eskumenekoa direnez gero. Dena den, kasuko langileengandik ez da kexarik jaso, dagozkienak baino ordainsari baxuagoak jasotzeari buruzkorik; horrelako kasu batean, NKIk horren araberrako erantzuna emanen zuen, arazoaren berri Funtzio Publikoari emanez, gai honetan eskumena duen unitate organikoari.

Larrabide estadioan zerbitzu orokorretako hiru arduradun lanpostu daude, eta plantillan agertzen dira maila- eta lanpostu-osagarria dutela. Nahiz eta plantilla horren argitalpenean ez den txandakotasun-osagarriarik adierazten, froga bidez dakigu hori kobratzen ari direla. Berriro ere ohartarazten dugu beharrezkoak diren datuak plantilla organikoan ipintzearen gaineko eskumena Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusiarena dela, fiskalizazio-txostenean bertan agertzen den bezalaxe, lehen ere esan bezala.

Idazkaritza Nagusiko Zerbitzu Anitzetako arduradunaren lanpostuari buruzko aipamenari dagokionez, argitu behar dugu ezen, Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiak argitaraturiko plantilla organikoan adierazitakoa zernahi dela ere, informazioa daukagula, aipaturiko lanpostuan kokaturiko bi langileak maila- eta lanpostu-osagarriak jasotzen ari izanari buruzkoa. Halaber, badakigu langile horietako bat jasotzen ari dela are gidari izateagatiko % 5eko arrisku-plusa ere, nahiz eta plantillan kopuru hori ez agertu.

4.- ATAL HONI DAGOKIONEZ: V-3. ONDASUN ARRUNTAK ETA ZERBITZUAK EROSTEA

– NAFARROAKO KIROL JOKOAK

Esleipen-hartzailea hautatzeko hiru eskaintzarik ez izateari buruz, dagoen froga bakarra da betekizun hori ez zela bete, akats material bat tar-teko, honako zerbitzuotan: grabazioa, edizioa, bideoen argitalpena, argazkiak egitea eta horiek hedatzea. Hasiera batean, kontratatu ziren soilik argazkiak egiteko eta ondoren hedatzeko zerbitzuak; batez ere, gure komunitateko idatzizko hedabideei zuzendutakoak. Geroago, bideoak editatzeko eta ondoren telebistei helarazteko zerbitzuak kontratatu ziren, argazki-zerbitzurakoak bestelako webgune baten bitartez, eta horrek kudeaketa-organoaren akatsa eragin zuen, laguntza-zerbitzu horien kontratazioan betekizun horretan ez baitzuen erreparatu, hornitzailea beste bat zela ulertzearen ondorioz.

– KIROL BABESLETZA

Zenbait iritzi eman dira Club Atlético Osasuna eta S.D.C. San Antonio-ren kirol-babesletzari buruz, Komunikazioko Zuzendaritza Orokorrak emandako txosten batean oinarrituta, eta kontratua sinatu zen eguna erreferentzia gisa hartuta (indarraldia, 2009-2011); bada, San Antoniori dagokionez babesletzaren zenbatekoak baieztatzen denari buruz esan behar da jarraitutasuna ematen zaiela 2006, 2007 eta 2008. urteetarako sinatuei.

Bi kasu horietan, kategoria galduz gero zenbateko aldatzea aurreikusten zen, kasuan kasuko kontratazio-espeditentean jasotzen den bezala.

5.- ATAL HONI DAGOKIONEZ: V-4. TRANSFERENTZIAK.- FEDERAZIOENTZAKO DIRU-LAGUNTZA

Txostenean zenbait ohar egiten dira federazio-entzako diru-laguntzen jardunari buruz. Kontuan eduki behar da, funtsezko elementu gisa, diru-laguntza banakatuak direla. Kirol -federazioak entitate pribatuak dira, onura publikokoak deklaratuak, kirol-administrazioaren zaintza-lan handia jasaten dutenak, hala maila ekonomikoan nola antolamendukoan. Gainera, bere eginkizunen artean, haietako asko Administrazioak delegaturikoak dira, eta diruz ez dira osoki asetzen; horren ondorioz, beharrezkoa gertatzen da diru-laguntzen analisi banakatuak egitea, lankidetzeta-hitzarmenen bitartez.

Hitzarmen horien esparruan, bai eta horiek arautzen dituen foru aginduak xedatuarenean, diruz lagundu daitezkeen gastu ezberdinen gehieneko ponderazioa eta irizpideak ezartzen dira. Nahiz eta jarduera batek berberak diru-laguntzako

portzentaje ezberdinak jasotzearen inpresioa sor daitekeen, federazio bakoitzaren gorabehera indibidualak dira jaso beharreko portzentajea baldintzatzen dutenak. Ondorioz, portzentaje horiek justifikatu beharri buruzko gogorazpena kontuan hartuko da.

Diru-laguntzak gastuen arabera kalkulatzeari dagokionez, esan behar da aukera dagoela kostu errealak ezagutu ondoren zenbatekoa aldatzeko, eta horrek berekin ez dakarrela kostua betiere aldatu beharra, betiere NKIren aurrekontuetan jarritako dirua eta federazio bakoitzak dituen ingurubarrak kontuan hartuta. Ezein kasutan, ez delegaturiko eginkizunetan, ez eginkizun berekietan ere, jarduera horiek gauzatzeak ez die irabazirik ekartzen kirol-federazioei, orokorki hartuta; eta, kostuari dagokionez, errentagarriagoak dira horrela, kirol-administrazioak zuzenean gauzatuta baino.

Azkenik, eta organo horren irizpidearen arabera, kirol-federazioek beren dokumentazio idatzian eta formatu digitalekoan, besteak beste, fitxa batzuk aurkezten dituzte, programen eta eginiko jardueren oroitidazki deskriptibo modura, haien analisirako eta justifikaziorako balio dutenak.

TOKI ENTITATEEN KIROL INSTALAZIOETAKO JARDUKETETARAKO DIRU-LAGUNTZAK

Kapital-transferentzietan dagokionez, izendunei buruz adierazi behar da ezen, kontusailen izendapena zein ere den, horrela jokatu dela, hain zuzen ere, parlamentu-talde ezberdinek aurkezturiko zuzenketek beren zioen azalpenean jadanik aipatzen zituztelako hala zenbatekoa nola hartzailea, bai eta diru-laguntzaren xedea ere; horrela, bada, izendun gisa izapidetu ziren; jakina, aldeko txosten juridikoa eta kontu-hartzailetzarena tarteko.

Alabaina, ehuneko ehun bat gatoz txostenak dioenarekin, eta horrelaxe aplikatzen du Nafarroako Kirolaren Institutuak publizitate, lehia aske, gardentasun, objektibotasun eta berdintasunaren printzipioei dagokionez, zeinek goiargitu behar baitute izendun-izaera ez daukaten laguntzen ematea.

Gure ustez, ohartarazpen hori Nafarroako Parlamentuari berari helarazi beharko litzaioke, parlamentu-talde edo parlamentarien elkarteek gogoan izan dezaten, aurrekontuen zuzenketak izapidetzerakoan.

6.- ATAL HONI DAGOKIONEZ: V-5. INBERTSIOAK

Fiskalizazio-txostenak honakoa dio: "pleguetan ez da ezartzen proposamen teknikoak balioesteko puntuaziorik, baizik eta alderdi tekniko ezberdinei

aurretiaz ponderatu gabeko kategoria kualitatiboak esleitzen zaizkie, eta kategoria horien puntuazioa ezartzen da aurkezturiko proposamenak konparatuz". Bada, hitz horiek soil-soilik dira lehia-elkarrizketa moduan eginiko lizitazioari buruzkoak.

Reyno de Navarra Arena pabiloierako inbertsioa, plataforma ezkutagarria, harmaila atzeragarriak eta eserlekuak diseinatu, fabrikatu eta muntatzeari dagokionez, "lehia-elkarrizketa" deritzon prozedurari jarraikiz egin zen, enpresek eskaintako produktuaren berezitasuna eta esklusibotasuna zirela-eta.

Proposamen teknikoak balioesteko puntuazioa guttiz adostuta egon zen, lizitazio-sistemak behartzen duen bezala. Komeni da aintzat hartzea ezen, dirudienez, lehenbiziko aldia dela Nafarroan lizitazio-mota hori aplikatzen denekoa, zeina konplexua baita berez, non enpresa parte-hartzaileek eskaintzak eta kontraeskaintzak aurkezten baitituzte. Sistema horrek lizitazaitzaileen eta kontratazio-mahaiairen arteko elkarrizketa aisea errazten du, eta Administrazioak bertatik bere behin betiko ondorioak ateratzen ditu. Kasu honetan, gogobetetasun orokorra lortu zen, lizitazio horretara sartu ziren enpresek osoki onartua, eta ez zen kezarik edo erreklamaziorik sortu.

Ibilgetuaren amortizazioko gastuei dagokionez, esan behar da aztertutako kudeaketa-eredua presatuta dela premisa gisa hartuz ezen pabiloia kudeatuko duen enpresa, ziurrenik Sprin, ez dela higiezinaren jabe izaneren, Nafarroako Gobernua baita, gauza jakina denez (Ondareak Nafarroako Kirolaren Institutuaren izenarekin inskribitu zuen lurzattia); beraz, ibilgetuaren amortizazioa ez da kontuan hartu behar pabiloia ustiapen-azterlanean.

7.- ATAL HONI DAGOKIONEZ: V-6. KIROL INSTALAZIOETAKO DIRU-SARRERAK

– LARRABIDE ESTADIOA

Zerbitzua ustiatzeko proiektuari dagokionez, adierazi behar da enpresak aurkezturiko proiektu osoak honakoak dituela barrenean: lan-plana, ekipamenduen eta instalazioen mantentze-programa, zerbitzu-ematerako proposatzen diren hobekuntzak, larrialdietarako jarduketa-plana, langileak eta lan-antolamendua. Hori guztia NKIko zuzendari nagusiaren maiatzaren 29ko 355/2009 Ebazpenari erantsitako dokumentazio gisa dago. Ebazpen horren bidez zerbitzua Masquatro enpresari esleitzen zaio.

Ustiapen-kontuari buruzko dokumentazioari dagokionez, sasoiko oroitidazki-balantzea agertzen da CETEDENaren eta Larrabide estadioaren igerilekua eta hari erantsiriko instalazioak kudeatu

eta ustiatzeko kontratua luzatzeko espedientean, 2010ekoan.

– C.R. GUEL BENZU

Zerbitzua ustiatzeko proiektuari dagokionez, kasuko dokumentazioa, gainerako dokumentazioarekin batera, maiatzaren 29ko 356/2009 Ebazpenaren espedientean dago. Ebazpen horren bidez Soysana Servicios Múltiples, S.L.-ri esleitu zitzaion kudeaketa integraleko zerbitzuaren kontratua.

Kontratuaren balio kalkulatuaren adinako berruari dagokionez, bai eta kontratu-betetzetik eratorritako arriskuak estaltzeko berme gehigarriei dagokienez ere, nahiz eta bi berme-moten bereizketa ez den agertzen, kontratu horren kontrola eta jarraipena ardurapean duen unitateak hartzen du, bai, kontuan.

8.- ATAL HONI DAGOKIONEZ: V.8. "KIROLA SUSTATZEA" IZENEN 940. PROGRAMAREN AZTERKETA OPERATIBOA

Puntu honetan berresten dugu alegazioetako 1. puntuan jadanik esandakoa, auditoria operatiboa egiteko murriztapenei dagokienez. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa da sartu beharreko elementuak programatzen dituena, eta Nafarroako Parlamentua da onesten dituena, kasuko ekitaldi ekonomikoan indarrean dagoen Aurrekontuei buruzko Foru Legearen testuinguruan.

– PROIEKTUA: KIROL-EGITEAREN SUSTAPENA

Berriro ere diogu langile-gastuen aurrekontu-betetzearen gaineko eskumena Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiarena dela, alegazio-txosten honetan jadanik azaldu den bezala.

Dena den, garrantzitsua da argitzea langile-gastuei buruz egiten den aipamena eztabaidagarria dela, zeren eta Funtzio Publikoak egiten baitu funts horien banaketa 940 Programako lau proiektuen artean, eta ikus dezakegu nola, adibidez, 2008an ez dituen sartzen Azpiegitura Zerbitzuko ordainsarien gastuak, baina 2009an, ordea, barrenean hartzen ditu. Horrez gain, 2008an, Kirol Zuzendariordetzako ordainsariei dagokien guztia Zuzendariordetzaren kodean sartuta geratzen da, eta 2009an, ordea, Zuzendariordetzaren eta hori osatzen duten atalen kodeen artean banatuta daude.

Toki Entitateek egiten dituzten jardueri eta horietako parte-hartzaileei buruzko daturik ezari buruz txostenean egiten den aipamenari dagokionez, esan behar da ezen, dokumentazioa espedientean ez bazegoen ere, datu horiek unitate orga-

niko arduradunean dauzkatela, dokumentazio osagarriarekin batera.

9.- ATAL HONI DAGOKIONEZ: VI. GOMENDIOAK

– Fiskalizazio-txostenari eginiko alegazioetan jadanik azaldu den bezalaxe, gai hau ez da Nafarroako Kirolaren Institutuaren eskumenekoa, eta fiskalizazio-txostenak berak adierazten duenez, dirudienez, Foru Administrazioaren kontabilitate-sistema osatzea beharrezkoa du, zerbitzu publikoaren kostuari buruzko informazioa eskaini dezan.

– 940. Programarako planteatzen diren helburuak jakina da oinarrituta daudela Nafarroako Kirolaren 2010-2015 Plan Estrategikoan (2010eko ekainean onetsia) ezarritako helburuetan. Onespenaren eguna kontuan hartuta, 2009an plana ez zen, teoriarik, aplikagarria. Onetsia ez dagoen arren, 2009an Plan horren prestaketa-fasea izan zenez, aintzat hartu zen, posible izan zen neurrian, Nafarroako Kirolaren Institutuak urte horretarako ezarritako helburuen prestaketarako.

– NKIk Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Orokorrari, gaian eskumena duen erakundea izaki, jakinaraziko dizkio plantilla organikoari buruzko gomendioak.

– Institutu honek beti harrotasun-iturri izan du toki-entitateen kirol-instalazioetarako diru-laguntzen ematean publizitate-, lehia-, objektibotasun-, berdintasun- eta gardentasun-printzipioak betetzea. – Aurrekoa bezain egiazkoa da zuzeneko emakidak egin direla, aurrekontuetan bai kontusail izendunak bai kontusail orokorrak sartuta egotearen ondorioz, parlamentu-taldeek aurkezturiko zuzenketak direla-eta; zuzenketa horietan, adierazi izan dituzte zenbatekoak, zein toki-entitatetara zuzenduta doazen, eta diru-laguntzen xedea.

– Kirol-federazioen diru-laguntzetan aplikaturiko irizpideei buruzko gomendioari dagokionez, Nafarroako Kirolaren Institutuak berretsi egiten du alegazio-dokumentu honetako 5. puntuan azaldu-takoa.

– Sprin enpresa publikoari buruz egiten den erreferentzia Nafarroako Gobernuaren erabakia izan zen, eta ez Nafarroako Kirolaren Institutuarena, eta, emaitzei dagokienez, printzipioz, Nafarroako Kirolaren Institutu honek poza agertzen du enpresa hori egiten ari den lana dela-eta.

– NKIk betidanik hartu du kontuan esleipen-irizpide guztien ponderazioa, eta ildo horri eusten dio eta eusteko asmoa ere du. Kasu bakar batean egiten du horren aipamena fiskalizazio-txostenak, eta lehia-elkarrizketaren ereduaren bidez izapideturiko espedientearena da; gai hori argituta geratu

da alegazio-dokumentu honen 6. puntuan, inbertsioei buruzkoan.

– 15.000 eurotik (BEZa kanpo) gorako hornidura- eta laguntza-kontratuetan, gutxienez ere hiru enpresarekiko kontsulta egiten da jokaera orokor gisa. – Fiskalizazio-txostenean detektatu da, salbuespen gisa, kontsulta hori ez zela egin kasu batean, baina arrazoia alegazio-dokumentu honetako 4. puntuan, ondasun arruntei buruzkoan, argitzen da.

– CR Guelbenzun eta Larrabide estadioan emandako zerbitzu kontratatuak ustiatzeko proiektuen onespina egin zen, hasiera batean, haien esleipena onestean, eta, geroago, isilbidez, kontratu horiek luzatzean, 2010ean. Nafarroako Kiroalaren Institutu honek, egin den gomendioa betez, urratsak emanen ditu egintza hori esanbidez ager dadin haien onespenean.

Oharra.- Emandako informazioa, zeinak frogagiriak behar baititu, espedienteetan dagoen dokumentazioan edo NKIren artxiboan dagoen dokumentazio osagarrian oinarrituta dago, salbu eta

Funtzio Publikoak emandako informazio telefonikoa, alegazio-dokumentu honetako 3. puntuan aipagai duguna, langileria-gastuei dagokienez. Txostenean esaten dugun bezala, informazio hori idatziz berrestearen zain gaude.

Iruñean, 2011ko otsailaren 9an

Zuzendari kudeatzailea: Javier Esparza Abaurrea

NAFARROAKO COMPTOS GANBERAREN ERANTZUNA, NAFARROAKO KIROLAREN INSTITUTUAK BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTURIKO ALEGAZIOEI EMANDAKOA

Aurkeztutako alegazioak behin-behineko txostenari erantsi zaizkio, eta txostena behin betikotzat jotzen da; izan ere, ohar horiek hartu dira fiskalizazio-lanaren azalpentzat, eta ez dute txostenaren edukia aldatzen.

Iruñean, 2011ko otsailaren 17an

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas